

B

BARREN

TOKIKOM

# Baserria plazara

Kontzezio azoka Mendaron



# maitane

ESTETIKA ZENTROA

## estetika-medikuntza zentroa

Hondartza kalea, 7, behea. DEBA - [www.mitanestetika.com](http://www.mitanestetika.com) - Tel.: 943 191 211

### MEDIKUNTZA ESTETIKOA

- ★ Gorputzeko mesoterapia  
(zelulitisa eta pilatutako koipeak kendu, gorpuzkera findu...)
- ★ Aurpegiko mesoterapia  
(Azala gaztetu eta argitasuna ematea)
- ★ Barizeak eta barikulak ezabatu
- ★ Aurpegiko zimurrak eta ezpainak bete
- ★ Peeling-a  
(Azaleko orbanak eta bestelako markak kendu)
- ★ Plaketetan aberatsa den plasma  
(azala gaztetu)
- ★ Botox
- ★ Kirurgia estetikorako kontsulta



Denda handitu eta berritu dugu

### DIODOZKO LASER BIDEZKO DEPILAZIOA



Segurua, eraginkorra eta merkatuko emaitza onenak eskaintzen dituena

- ★ Ezpaingaina.....30 €
- ★ Galtzarbeak.....35 €
- ★ Iztaiak (ingleak).....75 €
- ★ Besoak.....150 €
- ★ Hanka erdiak.....180 €
- ★ Izterrak.....240 €
- ★ Hanka osoak + iztaiak (ingleak).....360 €
- ★ Bularraldea + sabelaldea edo bizkarra.....240 €

### MIKROPIGMENTAZIOA (MAKILLAJE IRAUNKORRA)

- ★ Ezpainak.....300 €
- ★ Begietako goiko marra.....250 €
- ★ Bekainak.....300 €
- ★ Begietako goiko eta beheko marrak.....300 €

### GABONETARAKO

- ★ Tratamenduak oparitzeko bono bereziak
- ★ Promozio bereziak kosmetiko sortetan
- ★ Poltsak
- ★ Pitxiak
- ★ ...

### AZKENEKO TRATAMENDU BERRIAK

- ★ Suge pozoiarekin egindako aurpegirako tratamendu berezia, zimurrak bete eta aurpegiko espresioak fintzeko: **50 €**
- ★ Manikura iraunkorra. 15-21 egun irauten du. **35 €**

## Gogoratzen zarete Gabonetako Txapelketaz?

Urteak dira, jada, koadrilen arteko Gabonetako txapelketa antolatzen ez dela. Hala ere, oraindik gogoan dut duela hamabost urte sortzen zen giro paregabea! Eta zuek?

Duela larunbat batzuk, poteoan istorio zaharrak gogoratu genbiltzala, txapelketa haietako kontuak etorri zitzaizkigun gogora. Barre ederrak egin genituen. Gogoratzen dut neska koadrila bat apuntatu zela behin, eta euren onena eman zutela gainerako astakiloen aurka. Neu nintzen astakilo haietako bat; beste behin, errelebotan lehena iritsi ondoren, botaka bukatu nuen (nere azkeneko aldia izan zen). Beste garai batzuk ziren... Kiroldedia bete-beteta egoten zen Gabon inguruko gauetan; batean, saskibaloia, bestean, areto futbola... Sekulako giroa sortzen zen kiroldegian! Koadrilen arteko pikeak, barreak, lehiakortasuna...

Gauza bat etorri zitzaigun burura: zergatik ez berreskuratu hau dena? Iban eta ni neu buruari bueltaka hasi ginen, eta nahiz-eta hasieran zaila izango zela jakin bagenekien, buru-belarri jarri ginen honetara. Guk gurea egin dugu, baina, orain, zuek parte hartzea behar dugu.

Zuen gustukoak izango direlakoan, aurten, kirol hauek hautatu ditugu: erreleboak (herrian zehar),

bizikleta (estazioetik Erretxindira), areto futbola (kiroldegian), soka-tira (Plaza Handian) eta mus txapelketa (Toletxe tabernan).

Zaila izango dela jakin arren, hau guztia aurrera eraman ahal izateko herritarren parte-hartzea ezinbestekoa dugu, bai zuzenean parte hartuko dutenena eta baita giro ona sortzen lagunduko dutenen guztiena ere. Eskerrak eman, era berean, abentura honetan laguntzen ari zareten guztioi ere.

Abenduaren 23tik 30a bitartean ikusiko dugu elkar. Animatu! Irabazleentzat koadrila osoarentzako *paintball* saio bat dago jokoan, eta baita, nola ez, ondo bukatzeko afari eder bat ere!



Mikel Leon

**“Guk gurea egin dugu, baina, orain, zuek parte hartzea behar dugu, koadrilen arteko Gabonetako txapelketak aurrera egiteko”**



**Ni ere banaiz  
BARREN!**

**Zergatik babesten duzu BARREN?**

**PAULA HERAS**

*“Ilusioz joaten naiz ostiralero buzoira BARREN jasotzera, herriko kontuak euskaraz irakurtzeko aproposa delako. Gainera, euskara ikasteko balio dit”.*



# ELGOIBARKO UDAL AURREKONTUAK BEHERA, HIRUGARREN URTEZ

**13.477.135,76 EUROKO AURREKONTUA IZANGO DU ELGOIBARKO UDALAK 2011N, AURTEN BAINO %6 TXIKIAGOA**

EAJ, EA eta PSE-EEren aldeko botoekin onartu ditu Elgoibar-ko Udalak 2011rako aurrekontuak (PP abstenitu egin zen, eta EB-Aralar alderdiko ordezkaria ez zen egon Osoko Bilkuran). Hirugarren urtez segidan behera egingo dute aurrekontuek, eta 2010ekoa baino %6,2 txikiagoa izango da datorren urtekoa: 13.477.135,76 eurokoa, hain zuzen ere. Mendaroko Udalak ere prestatu ditu 2011rako aurrekontuak: 2.146.000 euro izango ditu datorren urterako, aurtan baino % 6,45 gehiago.


Ainhoa Andonegi



|  |  |
|--|--|
| Aurrekontua hiru zatitan banatzen da:        | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Udala: 13.477.135,76 euro</li> <li>• San Lazaro Egoitza: 1.379.000 euro</li> <li>• Udal Kirol Patronatua: 1.073.000 euro</li> </ul> |
| <b>SARRERA AIPAGARRIENAK</b>                 |  |
| Zuzeneko zergak                              | 2.789.076,48   |
| Transferentzia arruntak                      | 6.969.549,00   |
| Kapital transferentziak                      | 573.000  |
| Maileguak                                    | 457.853,64   |
| <b>Sarrerak guztira</b>                      | <b>13.477.135,76</b>   |
| <b>GASTU AIPAGARRIENAK</b>                   |  |
| Pertsonal gastuak                            | 4.237.557,62<br>(% 0,82ko jaitsiera)   |
| Ondasun arruntak eta zerbitzuak              | 4.951.057,84<br>(%2,83ko jaitsiera)  |
| Inbertsioak                                  | 1.558.415,61<br>(%25,68ko jaitsiera)   |
| <i>Hirigintza</i>                            |  |
| Spining gela berria Mintxetan                | 125.000  |
| Kiroldegi berriaren proiektuaren erredakzioa | 350.000  |
| Bide publikoak                               | 194.000  |
| Lursail erosketa                             | 250.000  |
| <b>Gastuak guztira</b>                       | <b>13.477.135,76</b>   |

## KONPARAKETA URTEZ URTE

|                | 2005          | 2006          | 2007          | 2008          | 2009          | 2010          | 2011          |
|----------------|---------------|---------------|---------------|---------------|---------------|---------------|---------------|
| <b>GUZTIRA</b> | 13.903.531,50 | 14.344.089,52 | 16.216.029,91 | 17.106.661,16 | 16.861.269,81 | 14.340.734,39 | 13.477.135,76 |




\* Urte hasieran onartutako aurrekontuen arteko konparaketa da goikoa. Urte amaierako aurrekontuak, behin betikoak, kontuan hartu gabe daude.

\* Kirol Patronatuaren aurrekontua Kultura Saileretik bideratzen zen lehen, eta orain, Administrazio Orokorretik. Ondorioz, batek jaitziera izan du, eta besteak, igoera.

\* Berdintasun Saila berria denez, ez dago aurreko urteetako daturik konparatzeko.

## 2011ko AURREKONTUAK




■ Borne Salla ■ Hirigintza ■ Hezkuntza ■ Kultura ■ Guskara  
 ■ Ongizatea ■ Hirigintza ■ Ogasuna ■ Gazteria ■ Berdintasuna

## INBERTSIO AIPAGARRIENAK

Inbertsioen atala %38,27 txikituko da 2011n, eta guztira, 1.558.415,61 euroko aurrekontua izango du. Inbertsio aipagarrienen artean, kiroldegi berria egiteko proiektua idazteak hartuko du diru kantitatearik handiena: 350.000 euro (Pilar ikastetxeko proiektuari egokitzapenak egiteko beharra balego, diru horretatik hartuko lukete).

Bide publikoak berritzeko ere diru partida bat aurreikusi dute, eta atal horretan nabarmentzekoa da Plaza Txikitik parrokiaraino egingo duten bidea. 194.000 euro erabiliko dira horretarako. Mintxetan, bestalde, spinning egiteko gela berria egingo dute, harmailen eta padel pistaren artean. 125.000 euroko aurrekontua izango du lan horrek. Azkenik, obraren bat egiteko lursailen bat erosi beharra balego, 250.000 euro aurreikusi dituzte. Inbertsioen atal honi 2010ean martxan dauden proiektuak gehitu behar zaizkio, eta horien artean garrantzitsuena Sigma auzoko bide berriaren obra izango da.

## MENDAROKO UDAL AURREKONTUA 2010EKOA BAINO %6,45 HANDIAGOA



■ Administrazioa  
 ■ Hirigintza  
 ■ Kultura  
 ■ Gizartegintza  
 ■ Nekazaritza

Udaletxean ordezkariak duten alderdi guztien aldeko botoarekin onartu dituzte aurrekontuak Mendaroko Udalak 2011. urtean, aurtengoa baino %6,45 handiagoa. Inbertsioen atalak aurrekontuen %8a hartuko du, eta Ikastolako kantxa estaltzeko proiektua idaztea izango da inbertsiorik garrantzitsuena (126.800 euro).

Administrazioa: 692.500

Hirigintza: 593.800

Kultura: 461.600

Gizartegintza: 352.500

Nekazaritza: 45.900



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Euskararen Eguna abenduak 3a bakarrik?

Azken urteotan hainbat ikerketa eta ebaluazio egin dira ikastetxeetan ikastere-  
duen emaitzak aztertzeko. Eta horietan guztietan agerian geratu da egungo hizkuntza ereduen sistemak ez duela euskalduntzen. Horregatik, hezkuntza arloko eta euskalduntze arloko eragileak, eta euskal jendartea oro har, aspaldidanik ari dira eskatzen ereduen sistema gainditzea eta euskalduntzea bermatuko duen metodologia edo sistema ezartzea gure eskoletan (ikasle euskaldun eleanitzak bermatuko dituen).

Azken azterketa Euskal Autonomia Erkidegoan Hezkuntza Sailak egindakoa dugu ikastetxe publiko eta kontzertatueta 37.000 ikasleren artean, LHko laugarren eta DBHko bigarren mailetan. Bertatik hainbat ondorio esanguratsu eta larri atera daitezke gainbegiratu azkar batean. Maila kaxkarrenari begiratzen badiogu, ikus dezakegu lehen hezkuntzan ikasleen %27,1ek ez dutela "hasierako maila" gainditzen, eta bigarren hezkuntzan % 33,5ek; D ereduan bertan, DBHn, %22,5ek "hasierako maila" dute; A ereduan, berriz, hamarretik zortzi ikasle ez dute euskararen ezagutza nahikorik. Hizkuntzaren "maila aurreratuari" begiratzen badiogu, ikus dezakegu LHn % 29,2k ematen dutela maila hori, eta DBHnko soilik %24,1ek.

Isabel Celaa anderearen ustez, emaitza horiek 2009. urtekoekiko hobekuntza adierazten dute, baina agerraldian adierazi zenez, eskolak ezin du izan euskararen

ezagutza bermatzeko tresna bakarra, eta beste hainbat faktorek ere eragiten dute.

Hezkuntza Sailaren azterketa hau Euskararen Egunaren atarian ezagutu dugu, eta honek aukera ematen digu azken hausnarketa hauek egiteko. Batetik, eskubideak ditugu (herri baten eskubidea bere hezkuntza sistema antolatzeke, kultura eta hizkuntzaren transmisio eta garapena ziurtatuz; eta herritarren eskubideak, legeetan jasoak, euskararen ezagutza bermatua izateko). Bestetik, betebeharrak (administrazioen obligazioa da, besteak beste, euskalduntzen duen sistema bermatzea). Eta azkenik, eginbeharrak.

Euskararen eguna izan dadila, jendarteko beste esparruetan bezalaxe, eskoletan ere euskal hiztunon eskubideak aldarrikatzeko eta administrazioen jarrera salatzeko eta administrazioak behartzeko eguna, eta era berean, baita eskola komunitate osoa (ikasle, irakasleak, bestelako langileak eta gurasoak) elkarrekin lanean jartzeko eguna. Hurrengo 364 egunak bezalaxe.

### LAB Irakaskuntza

#### Aupa, gaztia!

Bueno, bueno... pasau da denboria. Eta, ez alferrik. Honezkerok, horko erritmua ulertzen hasita egongo zara. Guk geukoraindik ere ez ditugu gauza batzuk ulertzen, baiña zapalduetako herri batian dana ei da posible. Ezin ulertu bestela karta hau. Ezin bestela pentsatu, zuri karta bidez berba egingo genizunik.

Badakigu berandu gabizela, Aina. Badakigu aspaldi merezi zenduala gure karta hau, baiña batzuetan kostatu egiten da gauzak ulertzea, onartzea. Eta holan, gehixegi kostatzen da holako kartak idaztea. Baiña heldu diogu honi ere.

Gauzak ez dira askorik aldatu herrixan, eruan zinttuenetik. Eurixa hasi dau, hori bai. Osterantzian, zeure faltia besterik ez da somatzen. Eta indarra, asko. Jende ugari bildu giñan eruan zinttuenian; jende ugari galdetzen dau zuregatik, Aina. Zurekin gaude, nahiz ez gauden lehen bezain gertu.

Asanbladatik, orain arte eitten genduan bezela, eskerrak ematia baiño ez jaku gelditzen, herri honengan sinistiarren. Ondo dakigu zenbat lan egin dozun hemen. Zenbat lan Gaztetxian, eta hemendik kanpo. Eta badakigu hori izan dala, beste askoren artian, beltzez jantzitako gaizto hárek zure billa etortziaren arrazoia. Ba jakin, Aina, arrazoi berdiñagaittik jarraituko dogula geuk hemen. Guk ere, zuk bezela, herri honengan sinisten dogulako; sinisten dogulako aldatu leikela, eta sinisten dogulako geuk aldatuko dogula.

Zurekin egindako bidian jarraituko dogu, berriz ere gure artera ekartzen zaittugun artian.

Bittartian, barixakuero, aulki huts bat dago asanbladan, zu noiz agertuko zain!

Asanbladetan aulki hutsak biharrian, herri hau beste modu batian eraikiko daban jendia bihar dogulako, hemen bihar dabelako... Ainara askatu!

**Elgoibarko Gazte Asanblada.**

# Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukunik.

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
 ☎ 943 744 112  
 Faxe: ☎ 943 743 704  
 E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)  
 Publizitatea: ☎ 943 743 704  
 E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

Argitaratzailea:




KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Eneritz Lazkano, Izaro Etzegibel MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo.

INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Unai Arrieta



Zuhaitz Gurrutxaga

Joan den astean Sagunten bizi izan genuenaren ondoren, geure onera etorri ezinik gaude taldekideok oraindik, Zuhaitz.

Ligako hamabigaren jardunaldia jokatzeko ari ginen Sagunten. Puerto Sagunt sailkapeneko azkena zen. Ez ginen gu joko eta emaitza bolada onean iritsi Valentzia aldera. Lehenengo minutuetarako partida zeharo okertu zitzaigun, eta agerian utzi genuen, beste behin ere, gure sasoi kaxkarra. Arratsaldea ilundu zuena, ordea, ez zen emaitza izan.

### “Oinazetan borrokan ari zen Nikolarengan taldeak behar duen indarra ikusi nuen”

Zorigaitzoko jokaldi batean, gure atezain Gurutzek eta gure eskuin hegalekoak, Nikolak, tupust egin zuten. Nikolak oreka galdu eta izugarriko takatekoa hartu zuen, zolua bete-betea aurpegiarekin jota. Une larriak bizi izan genituen. Gizona kantxan luze-luze gelditu zen, ahuspez. Segundo batzuen buruan, odol-putzu handi bat agertu zen inguruan.

Aurpegia txiki-txiki eginda zuela eraman zuten ospitalera. Ez zuen une bakar batean ere konorterik galdu, ordea. “Noizko osatuko naiz? Noiz izango naiz berriz ere jokatzeko moduan?” izan ziren Nikolak etengabe esaten zituen hitzak. Medikuz guztiak harri eta zur zeuzkan berari begira. Hartu zuen danbatekoaren ondoren ezin zuten ikusten ari zirena sinetsi.

Une horietan bere ondoan egoteko aukera izan nuen. Gizon indartsua da Niko serbiarra. Baina, hala ere, apartekoa iruditu zitzaidan erakutsi zuen adorea. Oinazetan halako kemenez borrokan ari zen gizaseme harengan taldeak une honetan behar duen bihotz-indarra ikusi nuen, Zuhaitz: aurka-egoera eta zailtasunetik tolerantzia, borrokarako jarraera, inkonformismoa, hautemandako gaitasuna, konfidantza, lorpenerako motibazioa. Halakoxea baita Niko, lehiakorra. Animo, Niko!

Aupa, Unai! Susto galanta, beraz, joan den astean izan zenutena. Izaten dira halakoak tarteka kirol munduan. Hala ere, diozunez, zuek, taldekideok, pasa zenuten Nikola lagunak baino estuasun handiagoa. Neronek ere izan dut Europa ekialdeko kiderik, eta susmoa daukat inguru haietako jendea zinez gogorra dela. Badi-ra pertsona batzuk amets baten bila dabiltzanean ezerk gutxi kiltzen edo geldiarazten dituenak. Horren lekuko zuen lagun Nikola bera. Jasotako kolpe larriaren ostean, berriro noiz jokatu galdezka ari den gizonak argi erakusten du ez duela edozer gauzak baztertuko bila ari den helburutik. Kasu horretan, eta askorik jakin gabe, eskubaloiko mailarik onenean jokalarik garrantzitsua izatea izango da bere helburuetako bat ziurrenik.

### “Nahiko genuke askok halako adorea izan, denok dauzkagulako ametsak betetzeko”

Nahiko genuke hainbat eta hainbatek halako adorea izan, denok dauzkagulako amets handi nahiz txikiak geure egunerokoan. Askotan, ordea, balorea eta konstantzia falta zaizkigu lorpen horiek eskuratzeko, eta bide bazterrean uzten ditugu, edozein oztopo txiki etsiarazten digulako.

Denetariko jendea dago beraz, eta kasu honetan erraz etsitzen duen jendeak badauka non begiratu eta zeinen eredia hartu. Neronek ere badauzkat, Unai, lortu nahi ditudan ametsak. Ea bada gogoz eta fedez noan haien bila, eta ea ba tartean izan daitezkeen eragozpeneei aurre egiteko nahikoa kemen izaten duan. Animo zure taldekidearentzat, Unai. Izan dadila laster berriro ere kantxan.



Elgoibarko Udala



Mendaroko Udala



Reala eta Athleticen arteko derbia jokatuko da hilaren 5ean Anoetan, euskal talde biren arteko historikoa.

## Zelan bizi duzu domekan jokatuko den euskal derbia?




**Fran Lopez**  
42 urte, pintorea

Osasunakoa naiz, eta niretzako derbia joan zen domekan San Mamesen jokatu genuena izan zen. Egia esan berdin zait domekan zer gertatzen den. Bana amaituko dela uste dut, baina argi ibili Athleticekin. 94. minutuan sartu dezakeelako bigarrena, izan ez den penalti batean.



**Gines Zambrano**  
64 urte, jubilatua

Realak irabaztea gustatuko litzaidake, baina egia esan zaila ikusten dut. Nik uste dut bana amaituko dela, baina ez eskatu goleatzaileak zeintzuk izango diren zehaztea. Dena den, ez naiz oso futbol zalea ere, eta ez pentsa derbiak loa galduaraziko didanik.



**Unai Oliveira**  
24 urte, langabetua

Egia esan berdin-berdin zait, ez naiz batere futbol zalea-eta. Dena den, bi taldeetako bat aukeratzekotan, nahiago dut Realak irabaztea, nire inguruko gehienak Realekoak direlako. Hori bai, pozten nau hiru euskal taldeak Lehenengo Mailan egoteak.



**Larraitz Zialtzeta**  
32 urte, familia medikua

Derbia jokatzen zenik ere ez nekien, pentsa ezazu!. Ditxosozko klasikoarekin aspertu ederra hartu dugu, baina derbiaren gainean ez dut apenas ezer entzun. Irabaztekotan, hala ere, nahiago dut Realak irabaztea, etxeko guztiak Real zaleak direlako.

Banaketa sistema hobetzeko helburuarekin,  
**BARREN** jasotzen duzuenon buzoletan pegatina txiki bat jarri dugu  
 Ez baduzue pegatina jartzerik nahi, esaiguzue lasai (943 744 112). Eskerrik asko!

**BARREN**eko banaketa sistema errazteko behar-beharrezkoa dugu zuen buzoiak pegatinarekin markatzea.

Mesedez, ez ezazue pegatina kendu buzoitik. Gure banatzaileek eskertuko dute.





**Hondakin hauek nire portal aurrean daude orain dela hiru urtetik:** “Orain dela hiru urte iritsi nintzen Mendarara, eta nire portal aurrean obretako hondakinak zeuden. Kenduko zituztela pentsatu nuen, baina obrak aspaldi amaitu zituzten arren, zikinkeria hori guztia leku berean dago. Harri handiak, porlana, hondarra... Umeek zikinkeria horretan jolasten dute egunero, eta hautsez beteta amaitzen dute, baina hori ez da txarrena: egunen batean min hartuko dute. Udaletxean jarri izan dut kexa, baina ez didate kasurik egin. Zikinkeria hori garbitu beharra dago, lehenbailehen”.



**Euria egiten duenean ez daukagu umeekin egoteko lekurik:** “Elgoibarren eguraldi txarra egiten duenerako gune estali bat behar da. Euria egiten duenean elizako edo udaletxeko arkupeak dira herrian dauzkagun leku estali bakarrak, baina oso hezeak eta hotzak dira umeekin egoteko. Badakigu irtenbide zaila dela, baina gero eta ume gehiago jaiozen dira, eta estalitako guneren baten beharra gero eta handiagoa da”.

**“Santa Klara auzotik 634 errepidera irten nahi dugunok arazoak izaten ditugu sarri, eta auto ilara luzeak sortzen dira, Tanatorio pareraino ere bai askotan:** “Orain, gainera, Urasanditik irten eta Donostiarantz joan nahi dutenek ere Txankakua pareraino etorri beharra dute, eta langileak lanetik irteten direnean, bereziki, arazoak izaten dira. Iruditzen zaigu ordu puntetan gutxienez udaltzainek egon beharko luketela hor, trafikoa zuzentzen. Garai batean egoten ziren, baina azkeneko hilabete eta erdian ez da inor egon, eta arazoak izan ditugu lanera garaiz iristeko”.

**Auto batzuk bi leku hartzen dituzte aparkatzeko:** “Herri honetan aparkatzeko daukagun arazoa ikusita, sekulako errespetu falta iruditzen zait auto batek biren lekua hartzea. Trenbide kaleko aparkalekua oso estua da, eta han aparkatzea ez da erraza izaten, baina horrek ez du ematen bi autoren lekua hartzeko eskubidea. Aparkalekuaren hasiera eta amaiera piboteek markatzen dute, eta ilarako lehenengo edo azkenengo autoa ezin da pibote horretatik metro eta erdira aparkatu, tarte horretan ez delako beste auto bat kabitzen. Nire ustez, modu horretan aparkatzen duten autoei ere isuna jarri behar zaie”.



Zuen kexak, galderak edo txalokak  
bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) 943 744 112

I. URTEURRENA



## JOSE LUIS ARRIZABALAGA URANGA

“Iriarte”

*Gure ondotik joan ziñen,  
baina gure bihotzetatik ez.  
Beti izango zaittugu gogoan.*

Etxekoak



2009ko abenduaren 15ean hil zen. I. urteurreneko meza abenduaren 18an izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokian. Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.

## Nagusiek gizarteari egiten dizkioten ekarpenak aprobetxatu nahi ditu Elgoibarko Udalak

64 urtetik gorako bizilagunak 2.680 dira Elgoibarren

**E**lgoibarko populazioa gero eta zaharragoa da, eta pertsona horiek gizarteari egiten dizkioten ekarpenak aprobetxatu nahi ditu Udalak. 1981ean 997 ziren 64 urtetik gorakoak Elgoibarren, eta 2010ean 2.680 lagun claude adin horretatik gorakoak. Hori dela eta, Legealdiko Plan Nagusiaren barruanarreta berezia eskaini dio Elgoibarko Udalak mendekotasunaren gaiari. Batetik, baliabide eta zerbitzu hobeak eskaini nahi dizkie nagusiei, eta bestetik, zahartze aktiboa sustatu nahi du. Horretarako, hainbat ekin-tza jarri dituzte martxan: Ludotekarekin elkarlanean belaunaldiak gerturatzeko egitasmoa abiatu dute, haurrak eta zaharrak elkarri ekarpenak egiteko. Era berean, jubilatuen biltokia biziberritu nahi dute, biltokia gehiago erabiltzeko. Bestalde, Nagusilaneako boluntarioek egiten duten lana goraiatu du Ongizate Sailak. Orain dela hamar urte sortu zuten taldea, eta gaur egun 23 bazkide ditu. Bakarrik dauden nagusiei laguntzea da elkartearen helburua, eta Ongizate Sailarekin batera, elikagaiak ere banatzen dituzte.



### Kontsumo iraunkorraren aldeko mezua zabaldu zuten zapatuan



Kontsumo iraunkorraren eta arduratsuaren aldeko mezua zabaltzea zen zapatuko feriaren antolatzaileen helburua (Emaus, Biolur, Econat, Jaurlaritza, Gipuzkoako Diputazioa eta herriko ikastetxeak), eta halaxe egin zuten. Bigarren eskuko produktuen merkatua, etxeko hondakinak gaika sailkatzearen garrantzia azaltzeko zuen postua edo plaka fotoboltaikoen funtzionamendua azaltzeko egon ziren, besteak beste, Leku Ederreko karpan. Nafarroa Plazan, bestalde, baseritarren postuak jarri zituzten, eta Lagun Taldea txirridulari elkartekoek 90 kiloko txerria erre zuten. Eguraldiak gehiegi lagundu ez zuen arren, herriar asko gertuatu ziren txerri pintxoak probatzera.

### Lanabesa Saria jaso du IMHk ekintzailetasuna sustatzeagatik

Elgoibarko IMH ikastetxeak Lanabesa Saria jaso du, enpresetako ekintzailetasuna sustatzeko egiten duen lanagatik. Donostiako Kutxa Espacio zientzia museoan egin zuten sari banaketa, eta Joxean Egaña IMHko zuzendariak jaso zuen saria. Egañak, IMHko presidente eta zuzendari izan ziren Alberto Ortuetari eta Jose Rejori eskaini zien saria. Hogei urteotan enpresen eta sektorearen beharrei erantzuteko eginko lanaren errekonozimendua izan da saria. IMHren helburua enpresentzako langile kualifikatuak prestatzea zen, eta lan horretan eguneroko beharretara egokitzen jakin du ikastetxeak. Horren adibide da, esate baterako, ILS hizkuntza eskolaren sorrera, Txandakako Ingeniaritza, Erreminta Makinaren Museoa, IMH bertuala...

IMHk hamabost langilerekin hasi zuen bere ibilbidea orain dela hogeitun urte, eta gaur egun, 120 langile ditu. Gaur egun, IMH berriro dabil enpresa txikiekin kompetentziak eta estrategiak lerrokatzen, eta eguneroko prozesuetan sortzen zaizkien berrikuntza beharrei erantzuten. Horretarako, Asmaola proiektua eta Ingeniaritzako titulu berri bat martxan jartzeko lanetan dihardute ikastetxean.

## Izena **Mausitxa**



Urrezko Super saria eskuratu du Mausitxako gaztak World Cheese Awards lehiaketan. Birminghamen (Britainia Handian) egin zen munduko gazten txapelketa, eta Idiazabal jatorri izendapeneko gaztandegiek 41 sari eskuratu zituzten. Mausitxako gaztak, bestalde, brontzezko domina ere jaso du, lehiaketako beste kategoria batean.

## Zenbakia **140**

140 euro ordaindu beharko dira garabiak autoa eramanez gero. Isuna 90 eurokoa izango da, eta gainerako 50 euroak garabiaren zerbitzuagatik ordaindu beharko dira. Horrez gain, auto-gordailuan pasatzen duen egun bakoitzeko hogeituro euro gehitu beharko zaizkio zenbaterako horri. Orain arte, 97,5 euro ordainduta berreskuratu zitekeen autoa, baina Udalak %2,1 igo ditu tasak, eta horregatik, garabiaren zerbitzua ere garestitu egin da. 1.000 kilotik gorako ibilgailuen kasuan, bestalde, 105 euro izango da garabiaren zerga, eta zepoa jartzen dieten autoen gidariek 25 euroko isuna odaindu beharko dute.

## Irudia **10 bai taldekoen aldarrikapena**

10 bai taldeak Astelena pilota lekura eraman du hamar koadroko frontoiaren aldeko aldarrikapena. Irujo eta Sebastian Gonzalezen arteko norgehiagoka jokatu zen domekan Eibarren, eta frontoiaren atzeko aldean jarri zuten pankarta 10 bai taldekoek: "Elgoibarren ganorazko frontoia orain" irakurri zitekeen. ETBn eman zuten partida, eta modu horretan Euskal Herri osora iritsi zen 10bai taldekoen aldarrikapena.



## **145 erretratu atera zituzten Arnaldo Otegiren alde**

145 lagunek atera zuten joan zen zapatuan Arnaldo Otegiren aldeko argazkia Elgoibarren. Arnaldo askatu, politika askatu plataformak jarri zuen martxan egitasmoa, eta dagoeneko 260 argazki inguru lortu dituzte. Otegiri atxikimendua adierazi nahi diotenenk, ondorengo zenbakira bidali behar dute argazkia: [freearnaldotegi@hotmail.com](mailto:freearnaldotegi@hotmail.com).

## **Abenduaren 9an izango da Bizikidetza Planari buruzko bigarren faseko bilera**

Elgoibarko Bizikidetza Planaren bigarren fasea jarri du martxan Udalak, eta hurrengo bilerak abenduaren 9an eta 14an izango dira, 17:30ean hasita, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Lehenengo fasean 462 lagunek hartu zuten parte, eta herrian dauden bizikidetza arazoaren diagnostia egin zuten. Bigarren fase honetan, bizi-kalitatea hobetzeko martxan jarri beharreko ekintzak landuko dituzte.

## **1975ean jaiotakoekin bazkaria abenduaren 18an**

1975ean jaiotako elgoibartarrek bazkaria egingo dute abenduaren 18an. Interesatuak 30 euro ordaindu beharko dituzte, Euskadiko Kutzako (Caja Laboral) ondorengo kontu korronte zenbakian: 3035 0007 23 0071120777. 13:00etarako jarri dute hitzordua Plaza Handian.

## **50 urtetik gorakoentzat enplegua sustatuko du Debegesak**

50 urtetik gorakoentzat enplegua sustatzeko, *Eraiki zure etorkizuna* izeneko heziketa plana jarriko du martxan Debegesak. Datuzen hilabeteetan hainbat ikastaro antolatuko dituzte, 50 urtetik gorako langabetuentzako. Azken datuen arabera, Debabarrenean 4.000 langabe inguru daude, eta horietatik 800 bat 45 urtetik gorakoak dira.

## PROBAK ITZULI DIRA GARAGARTZARA



Idi-probak Garagartzako plazan. 'Euskal jolasak eta herri kirolak' liburutik ateratako argazkia da, orain hogeita hamar urte ingurukoa.

**Kontzezio Azokako egitarauan bada nobedade bat aurren: idi-probak. 29 urte bete dira Mendaron azkenekoz idi-dema antolatu zituztenetik, eta orduko itxura hartuko du bihar Garagartzako plazak. Bost-sei eguneko idi-probak izaten ziren orduan Mendaron, eta sasoirik onenean, 29 idi pare ere jardun izan ziren lehian. Biharkoa, baina, apustua barik erakustaldia izango da, Elgoibarko Soarte baserriko eta Eibarko Areta baserriko idien arteko dema. Berez, ez da dirurik izango jokoan, baina ziur trabes txikiak izango direla.**

**Ainara Argoitia**

**K**ilimon futbol taldeko zuzendari-tzak sei bat urtean antolatu zuten idi-probak Mendaron, klub-berako dirua batzeko, baina 1981. urteko maiatzaren 1ean bukatu ziren kontu haiek. Jose Mari Lazkano *Etxebarri* itziartarrak (jaz hil zen) irabazi zuen azkeneko

garaikurra, eta hantxe amaitu ziren Garagartzako kinielak, trabesak, errifak eta gainerakoak. "Lan asko egin behar izaten zen, eta itxuraz, diru gutxi biltzen zen", aitortu du Florentino Larrañagak. Hala baieztatu du Inazio Garate *Tapiak* ere. Dena den, Kilimon futbol taldeak nahi beste diru lortu ez

bazuen ere, Garagartzako plazak ospe eta izen handia irabazi zituela zehaztu dute. "Aia eta Azkoitikoaren pare izatera iritsi zen behintzat", bota du Tapiak. Joan ziren sasoi haiek, eta bukatu ziren orduko jendetzak, baina, bihar, 18:00etan, idiak itzuliko dira Garagartzara.

Idi-demek iraun zuten bitartean, mendaror askok parte hartu zuten antolakuntzan. “Ez du ematen, baina lan handia egoten da”, azaldu du Elias Arriolak. Probalekua garbitu, ingurua itxi, idientzako ukui luak prestatu, idiak pisatu, gain-kargak prestatu... Elgoibar-ko gasolindegian pisatzen zituzten idiak, eta 1.100 kiloan sartzen ez zen idi pareari, pasatzen zen kilo bakoitzeko kilo eta erdiko gain-karga ezartzen zioten gero harrian. 10:00ak aldera pisatzen zituzten, eta gero, Mendaroko hainbat etxetan edukitzen zituzten, harik eta euren txanda iritsi arte. “Lehen ez zen oraingo konturik. Orain, nork bere idiak kamioian izaten ditu, eta probatik probara etxera eramaten dituzte. Lehen, herrian gordetzen genituen. Julio Salegiren kortan, Billalen, Ospasen...”, dio Tapiak.

## Kilimon futbol taldeak antolatzen zituen sasoi batean idi-probak, kluberako dirua biltzeko

### Denentzako adina lan

Arotza izanda, probalekua ixtea egokitu zitzaion orain hurrengo Arriolari, eta plaza zaintzen ere egin behar izan zuen gauren batean. “Abadetxean pasatzen genuen gaua, inor plazara sartu ez zedin zaintzen. Gogoan daukat goardian geunden egun batean, auto bat ikusi genuela plazaruntz etortzen, goizaldeko 4:00ak aldera. Ez zen bide zuzenean etorriko hura ere!. Piztu genituen argiak eta segituan uxatu genuen”, bota du bat-batean Eliasek. Plaza zaintzen eginahalak egin arren, baina, beti izaten ziren iskanbilak. Florentino Larrañagak ondo gogoan dauka plaza txatarra edo lima-hautsez zikinduta topatu zutenekoa: “Arratsaldeko saioa Tolosako Artzubik hasi behar zuen, eta aita-suinak agertu ziren plazara. Gogoan daukat suinak iman bat hartu eta plaza zikina zegoela esan zigula. Lima-hautsa bota zuen norbaitek, gu konturatzeke, eta han ibili behar izan ginen

gero sopletea hartu eta plaza guztia garbitzen. Ordu eta erdiko atzerapenarekin hasi zen arratsaldeko saioa. Tranpak beti izaten ziren. Ikusitako denak kontatuko bagenitu...”. Harria lurrari kateatzea komeni bazen, txatarra; eta jokoa arintzeko, berriz, jaboia. “Mila amarru klase apustua irabazteko”. Probak arratsaldez eta gauez egiten ziren Garagartzan, gauerdiko ingurura arte. “Fokoak eta guzti izaten ziren”, esan du Florentinok.

### Plaza txikia, baina “elegantea”

Garagartzako plazatik gertu bildu da kazetaria Elias Arriola eta Nikolas Zulaikarekin, eta bitartean, plaza garbitzen ari dira brigadako langileak [astelehen goiza da]. “Ez dute lan makala. Azaletik ariko dira, baina...”, bota du Nikolasek. Gainerako elkarrizketatuak bezala, plaza garbitzen ibilitakoa da bera ere. “Kako zorrotz batekin garbitu genituen harri bitarte guztiak”. Brigadakoak, baina, presiopeko urarekin ari dira. Bistan da beste garai batzuk direla.

24 metro luze da Garagartzako plaza, inguruko plazak baino pare bat metro motzagoa, baina aitzakiarik ez du, Tapiaren esanetan: “Kaltzada elegantea da oso, fin egindakoa”. Plazaren albo batean, eliza jotzen, bi harri daude, 1.900-2.000na kilo ingurukoak. “Azpilgoetatik ekarritakoa da bata, baina pitzatuta dago. Bestea, berriz, Mutrikutik-edo ekarri zuten, eta hori da erabiliko dutena”, zehaztu du Florentinok.

Garagartzako plazan, marka handiak egin zituzten orduko itzainek. “Azkoitiko Bentatxok 67 plaza egin zituen behin”, ekarri du gogora Florentinok. Izan ere, izen handiko itzainak etortzen ziren Mendarora: Leoia eta Iketza markinarrak, Zaku, Gonzalez, Ali, Antxia... “Leoia zen orduan nagusi. Ezizena ere halakoxea zuen gero: Leoia. Antton Totorikaguena dauka izena, eta arratsaldean hiru idi parekin eta gauean beste hirukin ere ibili izan zen hemen”, zehaztu du Tapiak. Apustu zaileak ere ospe handikoak izaten ziren: Erlete, Santuaran, Belarreta, Iketza bera, Argoin, Izeta, Altzubarren... “Diru asko jokatzen zen, eta sariak ere handiak izaten ziren, txapelketako probak izaten ziren-eta”, esan du Florentinok. Mendaron bertan itzainik izan ote den galdetuta, birritian pentsatu gabe eran-

tzun du: “Kortaberri eta Bidaburuko Jose Urain zena”.

### Biharko erakustaldia

Biharko, erakustaldia den heinean, ezberdina izango dela ohartarazi dute lau elkarrizketatuek. “Idi pare politak dituzte biek ere, baina ez dut uste topera erabiliko dituztenik. Soartek lehenengo atera berri du Gernikan, baina Aretak ere idi pare politak ditu eta...”, dio Tapiak. Hala ere, 60na plaza egingo dituztelakoan dago. Florentinok trabesa ere egin die kazetariari eta Tapiari: “Soartek irabazi baietz, gutxienez 60 plaza eginda”. Inork ez dio, baina, jokoa hartu. Soarteren idiak ondo preparatuta daudela bota du. “Korrika egiteko zintan preparatzen ditu. Idiei tratu txarra ematen zaiela pentsatzen dute batzuek, baina gaur egun pertsona asko baino hobeto zainduta daude idiak urte osoan”. Serio jarri dira bat-batean, baina biharkoaz galdetean lasaitu dira. Ilusioz daudela nabari zaie.

Orain 30 urte moduan, bihar ere lanean jarriko dituzte, baina “gustura” jardungo dute. Jose Mari Zelaia *Bizkaik* egingo ditu bihar epaile nagusiaren lanak, eta Tapiak lagunduko dio, makilarekin. Harria probalekutik irtean ez dela egiaztatzea izango da bere lana. Zartainero, berriz, Tapiaren anaia Roberto Garate eta Jesus Mari Muguruza ariko dira, eta plaza garbitzen, Florentino Larrañaga.

## 24 metro luze da Garagartzako plaza, inguruko plazak baino pare bat metro motzagoa

Biharkoak zer ematen duten ikusi aurretik, hala ere, hurrengo urtekoan pentsatzen ere jarri dira Florentino eta Tapiak. “Idi-probak eta zaldi-probak uztartuko nituzke nik neuk”, bota da du lehenengoak, eta baietz erantzun dio Tapiak aldamenetik. Horra hor antolatzaileei jarritako erronka.

## Baserriko produktuak erosteko eta dastatzeko aukera izango da bihar azokan

Urtero legez, baserriko produktu onenak erosi eta dastatzeko aukera izango da bihar Mendaron, Kontzezio azokan. Guztira, hamalau postu izango dira, horietako hiru nekazaritza ekologikokoak. Iaz bezala, herriko baserri bakarrak jarriko du mahaia: Lasalde. Gazta, ogi, eta ortuko barazkiez gain, baina, ganadu erakusketak ere egingo da aurten ere, eta erakusgai jarriko diren abere guztiak Mendaroko baserrietakoak izango dira. Lizantzu, Sarube, Agarre-Haundi, Etargete eta Agarre-Txikiko ganadua ikusteko aukera izango da. Hona hemen, azokan postua jarriko dutenen zerrenda:



Mendaroko Lasalde baserriko Juanito eta Xeber Loiola aita-semeak, iaz.

### BIHAR, ZAPATUA

**9:30:** Saiheski erre pintxoak eta sagardoa dastatzeko aukera, plazan.

**12:00:** Trikitixa dantza taldearen kalejira.

**12:30:** Herri kirol jaialdia.

Aizkolarien arteko erronka:

Floren Nazabal-Patxi Larretxea / Donato Larretxea-Ernesto Ezpeleta

Aizkolari gaztea: Hodei Ezpeleta

Harri jasotzen: Idoia Etxeberria.

**13:30:** Sari banaketa.

Baserritar jantzi dotoreenari eta baso txukunenari saria, eta erosketak zozketa.

**18:00:** Idi-demak, Garagartzako plazan.

Elgoibarko Soarte baserriko eta Eibarko Areta basiko idiak lehiatuko dira.

**19:30:** Kupela taldearekin dantzaldian, frontoian.

### HILAREN 8A, EGUAZTENA.

**11:30:** Meza nagusia, Garagartzako elizan, eta ondoren, Eibarko Kezka dantza taldearen dantza erakustaldia, Anjel Bazterretxea abadeari egingo zaion omenaldiaren barruan.

### BARRENEKO bonoak

BARREN astekariak ere jarriko du postua bihar Mendaron. Bost euroko bono laguntzak atera ditu BARRENEK, 2010eko defizitari aurre egiteko, eta nahi duenak eskuragarri izango ditu bihar, Uztargi taberna inguruan.

- |                              |  |
|------------------------------|--|
| ⓧ Malax baserria             | ⓧ Mutrikuko Goienetxe baserria                           |
| ⓧ Mendaroko Lasalde baserria | ⓧ Mallabiko Agarre-azpi baserria                         |
| ⓧ Andikonagoitia baserria    | ⓧ Jose Lonbide (Nekazaritza ekologikoa)                  |
| ⓧ Teresa Petralanda          | ⓧ Elgoibarko Txillarre baserria (Nekazaritza ekologikoa) |
| ⓧ Atxitxe baserria           | ⓧ Goikola baserria                                       |
| ⓧ Antia baserria             | ⓧ Miriam Onaindia (Nekazaritza ekologikoa)               |
| ⓧ Andutzene baserria         |  |
| ⓧ Arizaga baserria           |  |

## Eibarko Kezka dantza taldeak dantza saio bat eskainiko du hilaren 8an, Angel Bazterretxea abadeari egingo zaion omenaldiaren barruan

Hilaren 8an, meza nagusiaren ostean (11:30, Garagartzako elizan), Eibarko Kezka dantza taldeak dantza emanaldia eskainiko du Garagartzan, Mendaroko herriak Anjel Bazterretxea abadeari egingo dion omenaldiaren barruan. Ordu erdioko dantza emanaldia izango da, eta Mendaroko dantza-historiarekin lotura duten dantzak dantzatuko dituzte Kezkakoek.

Mendaron, Kontzezio Egunari lotuta egon izan dira dantzak luzaroan. Gregorio Santa Cruz, Eibarren XX. mendean izan den dantza-maisu handienak, Mendaron ere prestatu izan zituela dantza taldeak, eta egun horretan dantzatu izan zuten. 1931n sortu zuen lehen dantza taldea Mendaron, eta Durangaldeko dantzari-dantza (ezpata-dantza, garai hartako dantzarienzako) ikasi zuen Menda-

roko gazte talde batek Santa Cruzekin. Garai hartan, urteko jai nagusienetakoa Kontzezio Eguna izaten zen Mendaron, eta hain zuzen ere, 1931ko abenduaren 8an, Kontzezio Egunean, egin zuen lehen agerraldia Mendaroko dantza talde horrek, meza ondorenean. Hain justu ere, orduko errepertorio bera, Durangaldeko dantzari-dantza, dantzatuko dute eguaztenean. Horrez gain, aureskua edo soka-dantza ere egingo dute. Gregorio Santa Cruzen ondoren bere ilobak, Fausto Sanz-ek, jardun zuen dantzan erakusten, eta hark soka-dantza egiten zuen erara dantzatuko dute Kezkakoek. Horiez gain, Gipuzkoako dantza batzuk eskainiko dituzte: Kontrapasa, zortzikoa, zinta-dantza eta punta-motz soinu zaharra. Hogei dantzarik eta hiru txistularik parte hartuko dute emanaldian.

# Kantauri itsasoko ikuspegiari eta uretako animaliei buruzko argazki erakusketa antolatu du Ongarrik

Abenduaren 23ra arte egongo da ikusgai Kultur Etxean

Ongarri argazkilaria taldeak Kantauri itsasoari buruzko erakusketa antolatu du, Euskal natura elkartearekin batera. Ongarrik bigarren urtez jarraian prestatu du erretratu erakusketa Euskal naturarekin elkarlanean. Iaz, Euskal Herriko ingurunean bizi diren ugaztunak izan ziren erakusketako protagonistak, eta aur-



ten Kantauri itsasoa eta bertako animaliak izango dira.

Kantauri itsasoko ikuspegiak eta bertako animalien begiradak jasoko dituzte, 26 argazkitan. Bost argazkilariren lanak bilduko dituzte: Alex Iturrate, Nano Cordovilla eta Jesus Villalba argazkilaria ezagun eta sarituen urpeko argazkiak izango dira batetik, eta Peio Romatet eta Luis Llavoriren kostaldeko irudiak, bestetik. Argazki guztiek informazio-fitxa bat dute, eta bertan, inguruneari edota espeziei buruzko xehetasunak eta berezitasunak irakurri ahal izango dira. Testuak euskaraz eta gaztelaniaz egongo dira, eta espezieen izenak frantsesez eta ingelesez ere bai. Horrez gain, argazki-erakusketa marearterko inguruneari eta Kantauri itsasoaren egi-



turari buruzko bi informazio-panelek osatzen dute.

Erakusketa abenduaren 10ean inauguratuko dute, eta hilaren 23ra arte egongo da ikusgai, Kultur Etxean. Astelehentik zapatara egongo da zabalik, 19:00etatik 21:00etara.

## Abenduaren 28an izango da Elgoibarko Izarraren Gabonetako bertso jaialdia, punta-puntako bertsolariekin

Abenduaren 23ra arteko epea jarri dute sarrerak aurrez erosteko

**E**lgoibarko Izarra kultur elkarteak antolatutako bertso jaialdia abenduaren 28an izango da, eta aurten ere izen handiko bertsolariek hartuko dute parte: Amets Arzallus, Igor Elortza, Uxue Alberdi, Jon Maia eta Julio Soto. Gai jartzaile lanak Irati Agirreazaldegi elgoibartarrak egingo ditu.

### Sarrerak aurrez erosteko

Sarrerak abenduaren 9an jarriko dituzte salgai, eta hilaren 23ra arte eskuratu ahal izango dira Elgoibarko Izarrak Ubitarten duen egoitzan. Epe hau amaitu ondoren, sarrerarik geratzen bada, egunean bertan Herriko Antzokian salduko dira. Sarrerak bederatzi euro balio ditu, baina Elgoibarko Izarrako bazkideek 6 eurotan erosi ahal izango dituzte. Bertso saioa 22:30ean hasiko da.



lazko saioko argazkia.

## Pirritx eta Porrotx pailazoen saioa urtarrilaren 9an izango da

Pirritx eta Porrotx pailazoek *Ongi etorri Pupu eta Lore* emanaldia aurkeztuko dute urtarrilaren 9an, Olaizaga kiroldegian. Azken urteetan bezalaxe, bi saio eskainiko dituzte; bata, 16:00etan, eta, bestea, 18:30ean. Sarrerak Kutxa bidez erosi behar dira, eta hiru aukera daude: kutxazainean bertan, telefonoz 943 001 200 zenbakira deituta edo Internetez [www.kutxa.es](http://www.kutxa.es) helbidean. Sarrerak sei euro balio ditu, eta pertsona bakoitzak lau erosi ahal izango ditu gehienez. Informazio gehiago eskuratzeko Gaztedia Sailera deitu daiteke: 943 741 050.

## ‘Larru haizetara’ antzerkia taularatuko dute abenduaren 10ean Herriko Antzokian



*Larru haizetara* antzezlan taularatuko du Bikoteatro konpainiak abenduaren 10ean, Herriko Antzokian. Mikel Martinez eta Patxo Telleria aktoreak dira antzezlari honetako protagonistak. *Larru Haizetara* sexu terapia kolektiboa da, eta euskaldunen sexu jarreran, iragana eta oraina bereztuko ditu. Umorezko antzezlan da, “zorrotza eta dibertigarria”. Ikuskitzuna 20:30ean hasiko da. Sarrerak egunean bertan erosteko aukera izango da lehiatilan, eta aurrez, [www.kutxa.net](http://www.kutxa.net) atarian.

### ‘Pinotxo’ antzezlan, domekan, Herriko Antzokian

Libertablas taldeak *Pinotxo* taularatuko du domekan Herriko Antzokian. *Pinotxo* liburu ezagunaren moldaketa bat da antzezlan, eta Pinotxorekin batera beste hainbat txotxongilo ikusi ahal izango dira taula gainean. Ikuskitzuna 16:30ean hasiko da.

### Parrokiako jaiotza hilaren 21ean zabalduko dute

Parrokiako jaiotza abenduaren 21ean inauguratuko dute Elgojaitza taldeko kideek, eta Gabon festak pasatu arte ikusi ahal izango da, San Bartolome parrokiaren aldamenean dagoen lokalean. Astelehenetik barixakura 17:30etik 20:30era egongo da zabalik, eta asteburuetan eta jai egunetan, 10:30etik 13:30era eta 17:30etik 20:30era.



# Danobat enpresakoek Euskararen Eguna ospatu dute

Ikastetxeetan ere ekintza bereziak egin dituzte



**J**oan zen barixakuan hasi zituzten Danobateko langileek Euskararen Egunaren harira antolatutako ekintzak. Herri Kirolak egin zituzten arratsaldean Ikastolako frontoian. Besteak beste, lokotx bilketan, pilotan eta soka-tiran jardun zuten. Iluntzean trikipoteoa egin zuten, eta ondoren, bertso afaria izan zuten Zubi Ondo elkartearen, Andoni Egaña eta Fredi Paya bertsoariekin.

Horrez gain, Elgoibar Ikastolako, Herri Eskolako, Ispasterko eskolako eta Danobateko bazkideen seme-alabentzako denbora-pasak prestatu dituzte. Martitzenean jaso zituzten lan guztiak, eta parte hartu duten guztien artean hi-

ru bizikleta zozketatu dituzte. Ikastolako Garazi Arriola, Herri Eskolako Lorena Etxaniz, Azkoitiko Julian Aizpurua bazkidearen alaba, eta Ispasterko Maialen Uriarte izan dira irabazleak.

## Euskararen Eguna ikastetxeetan

Elgoibar Ikastolan eta Herri Eskolan ere hainbat ekitaldi egin dituzte Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko. Herri Eskolako umeek Alfredo Etxeberria alkatearen bisita izan zuten atzo. Ikastolan, bestalde, gela bakoitzak ekitaldi txiki bat prestatu du, eta gainerako taldeen aurrean aurkeztu dute.

## 'Jara live' liburua kaleratu du Jasone Osorok

Jasone Osoro kazetari eta idazle elgoibartarrak *Jara live* liburua argitaratu du. Jara eta Ihintza Lekeition egingo den makro-kontzertu batera joango dira, eta hamaika abentura biziko dituzte. *Jara, Jara bikiak eta bikoteak*, eta *Jara Bartzelonan* liburuen ostean, Jararen bildumako laugarren liburua da honakoa. Osorok, bestalde, *Berbak* ([www.berbak.net](http://www.berbak.net)) izeneko enpresa jarri du martxan, eta neurrirra egindako testuak eskaintzen ditu.



## Taupadaren antzerki tailerra

Taupadak antolatutako antzerki tailerrean izena emateko epea abenduaren 6tik 17ra arte izango da. Tailerra urte osokoa izango da, eta astean bi orduko saioa eskainiko dute, astelehenetan. Interesatuak ondorengo telefonotara deitu dezakete: 653013813 (Larra) edo 656416677 (Eduarne).

## 'Elgoibar Urban Show' hip-hop ikuskizuna izango da abenduaren 17an



*Urban Show* hip-hop ikuskizuna antolatu du Maria Escobedo kiroldegiko dantza irakasleak abenduaren 17rako. kuskizun berritzailea eta aintzindaria izango dela adierazi du, hemen inguruan ez delako era honetako besterik egiten. Izen handiko dantzariak eta Elgoibarko Dance&smile taldeko gazteak hartuko dute parte ikuskizunean. Sarrerak salgai daude dagoeneko. Elgoibarren, Iriondo Kirolak dendan, Toletxe tabernan eta Olaizaga kiroldegian erosi daitezke, sei eurotan. Egunean bertan ere eskuratu ahal izango dira sarrerak Herriko Antzokian bertan, 8,5 eurotan. Ikuskizuna 20:30ean hasiko da.

# Iñigo Lazkano mendaroarrak irabazi du bigarren urtez jarraian Alkortako Igoera

Hamasei segundoko aldea atera dio bigarrenari, Uriarteri

Zapatuan jokatu zen Alkortako Igoera, eta bigarren urtez jarraian Iñigo Lazkano mendaroarra nagusitu zen, 21:15eko denbora eginda. Lazkanok ez zuen lortu iazko bere marka ontzerik, iaz baino zortzi segundo gehiago behar izan zituelako aurten, baina hala ere, hamasei segunduko aldea atera zion bigarren sailkatuari: Josu Uriarte markinarrari. Uriarteren atzetik, Jon Larrañaga mendaroarra sailkatu zen. Emakumezkoetan, berriz, Nerea Amilibia izan zen azkarrena. Estreinako aldia zuen Amilibiak, eta hamargarren sailkatu zen, 26:13ko denbora eginda. Guztira, 24 lagunek parte hartu dute aurten, iaz bestek. Argazki gehiago eta bideoa [www.ElgoiBARREN.net](http://www.ElgoiBARREN.net) webgunean.




Parte hartzaile guztiak Alkortako gainean, presoen aldeko pankartarekin.

## Alkortako V. Igoera



|                           |       |
|---------------------------|-------|
| 1. Iñigo Lazkano          | 21:15 |
| 2. Josu Uriarte           | 21:31 |
| 3. Jon Larrañaga          | 22:57 |
| 4. Igor Urionabarrenetxea | 23:42 |
| 5. Arkaitz Astiazaran     | 24:48 |
| 6. Sugar Etxaniz          | 25:10 |
| 7. Arkaitz Irureta        | 25:30 |
| 8. Migel Angel Urkiza     | 25:58 |
| 9. Aitor Ibabe            | 26:13 |
| 10. Nerea Amilibia        | 26:13 |
| 11. Unai Salegi           | 26:14 |
| 12. Jabier Hernandez      | 26:45 |
| 13. Haritz Arrieta        | 26:58 |
| 14. Ibon Villanueva       | 27:04 |
| 15. Xabin Zenarruzabeitia | 27:12 |
| 16. Asier Santos          | 27:26 |
| 17. Anton Mendizabal      | 27:51 |
| 18. Jurdan Ezenarro       | 28:24 |
| 19. Jesus Beristain       | 29:05 |
| 20. Israel Soto           | 29:37 |
| 21. Mikel Gabilondo       | 31:33 |
| 22. Mikel Ugartetxea      | 31:50 |
| 23. Joseba Jurado         | 31:50 |
| 24. Lore Bereziartua      | 35:25 |



Ezkerretik eskuinera, Aitor Ibabe eta Nerea Amilibia, Iñigo Lazkano, Lore Bereziartua eta Jon Larrañaga.

# Iker Maiora Gipuzkoako txapeldunorde izan da Donostiako maratoian


Hotzak eta eguraldi bustiak estu hartu zituen antxitxikariak

**E**guraldi hotz eta bustiarekin jokatu zen domekan Donostiako maratoia, eta horrek are zailagoa egin zuen berez ere gogorra den lasterketa. Elgoibartik eta Mendarotik hamabost lagun joan ziren Donostiara, eta Iker Maiora mendarotarra izan zen denetan azkarrena. Maiorak sekulako erakustaldia eman zuen bigarren urtez jarraian, eta bere marka ontzerik lortu ez bazuen ere (2:27:21 egin zuen iaz), Gipuzkoako bigarren egin zuen, Asier Cuevas eibartarraren atzetik. Hotzak estu hartu zuen Maiora, eta horrexegatik beharbada uste baino gogorragoa egin zitzaiola aitortu zuen proba amaitu berrian: "Onenek ere ez dute euren markak ontzerik lortu, eta gustura egoteko modukoa da beraz. Askok sufritu dut, batez ere lehenengo zatian. Kontxa inguruan haize handia zegoen, eta gainera, ez dut iaz izan nuen laguntzarik izan".

Maioraren atzetik, Xabier Bergaretxe izan zen gure ordezkarien artean bigarren denbora onena egin zuena (2:40:00), eta Roberto Gonzalez hirugarrena (2:45:11).

## Sailkapena

|                           |         |
|---------------------------|---------|
| 10. Iker Maiora           | 2:28:36 |
| 51. Xabier Bergaretxe     | 2:40:00 |
| 80. Roberto Gonzalez      | 2:45:11 |
| 210. Iñigo Lariz          | 2:54:30 |
| 329. Asier Arrieta        | 2:58:17 |
| 355. Iñigo Iturbe         | 2:58:51 |
| 1.102. Jose Luis Diez     | 3:24:11 |
| 1.301. Mikel Agullo       | 3:28:54 |
| 1.310. Jose Ignacio Perez | 3:29:02 |
| 1.461. Jorge Elkororibe   | 3:33:33 |
| 1.626. Asier Arzamendi    | 3:39:47 |
| 1.641. Jabier Oñederra    | 3:40:01 |
| 1.745. Iñigo Iparragirre  | 3:44:15 |
| 1.746. Jabi Guallar       | 3:44:15 |
| 2.049. Juan Jose Martinez | 3:57:28 |



Lehenengo argazkian, Iker Maiora, ahalegin betean. Bigarrenean, 1.027 dortsalarekin, Xabier Bergaretxe, eta hirugarrenean, Jabi Guallar eta Iñigo Iparragirre, Anoetara iristen.

## Gorka Merinok eta Kerman Ispizuak irabazi dute padel txapelketa

Domeka eguerdian jokatu zen 40/15 tenis elkarteak antolatutako padel txapelketako finala, eta Gorka Merino eta Kerman Ispizuak bi setetan irabazi zieten Mikel Elkororibe eta Xabi Alonso elgoibartarrei. Antolatzaileen esanetan, partida gogorra eta lehiatua izan zen oso, eta tanto ale onak ikusteko aukera izan zuten finala ikustera joan zirenek.



# Munduko xakelari onenatarikoak izango dira Elgoibarko Xake Txapelketan

Hilaren 14tik 21era jokatuko dira partidak

**A** benduaren 14an egingo dute Elgoibarko Nazioarteko Xake Txapelketaren aurkezpena udaletxe-ko pleno aretoan, eta egun horretan bertan hasiko dira partidak. Aurten ere munduko xakelari onenatarikoek hartuko dute parte, eta horien artean, iazko txapelketako irabazlea ere izango da: Mikel Huerga iruindarra. Bestalde, Elgoibarko xake txapelketa oso ondo ezagutzen duten beste bi jokalarirenekin etorriko dira: Oleg Korneev errusiarrak eta Azerbaijango Azer Mirzoev. Errusiarrak sei aldiz irabazi du Elgoibarko txapelketa, eta Azerbaijango xakelariak 2006an jantzi zuen txapela Elgoibarren. Hiru izen handi horiekin batera, Dragan Paunovic serbiarrak, Zenon Franco paraguaiarrak, Miguel Muñoz peruarrak, David Lariño es-



painiarrak eta Alejandro Franco, Iñigo Argandoña eta David Astasio euskal herritarrek parte hartuko dute. Txapelketa hilaren 21ean amaituko da.

Bestalde, abenduaren 19an eskolarteko xake txapelketa jokatuko da, Elgoibar Xake Taldeak Juan Mugertza kalean duen lekoean.

## Mendizaletasuna hizpide, kirol sariak banatzeko ekitaldian

Abenduaren 21ean banatuko dituzte aurtengo kirol federatuaren sariak. Musika Eskolan izango da ekitaldia, 19:30ean hasita, eta azken urteetan bezala, sariak banatu aurretik mahainguru bat egingo dute. Aurten mendizaletasuna izango da gaia. *Lehiaketak mendian: Bai edo ez?*. Solasaldia amaitu ondoren banatuko dituzte 2010eko kirol sariak.

## Aurten ez da San Silvestre lasterketarik egingo

Urgazi taldeko arduradunek aurreratu dute aurten ez dutela San Silvestre lasterketarik antolatuko. Abenduaren 31n Gabon Zahar Feria eguna ere izango da, eta ondorioz lasterketa bertan behera lagatzea erabaki dute. Azken urteetan indar handia hartu du lasterketa honek, eta iaz 200 lagunek hartu zuten parte.

## Kiroltasuna nagusi 10 bai pala txapelketan

18 bikote ari dira 10 bai pala txapelketan parte hartzen, eta antolatzaileen arabera, kiroltasuna da nagusi ikastolako frontoian. Bikote guztiak Elgoibarkoak dira, nahiz inguruko herrietako parte hartzaileak ere badiren. Txapelketa final zortzi-erenetan sartuko da datorren astean.



Eñaut, Unai, Iñigo eta Joseba, irribarretsu, partida amaitu ondorenean.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Haundi 1 – Zalla 2 (3. maila)  
Tolosa 0 – Elgoibar 3 (Erreg. Pref.)  
Elgoibar 2 – Zarautz 2 (Ohorezko jub.)  
Eibartarrak B 0 – Elgoibar 9 (Kad. A)  
Soraluze 2 – Elgoibar 4 (Kad. B)  
Arrasate 4 – Elgoibar 0 (Ohorezko inf.)  
Elgoibar 7 – Hondarribia 1 (Txiki)  
Zumaia 2 – Elgoibar 3 (Aleb.)

### ESKU PILOTA

#### Gipuzkoako txapelketa

Lagunak 22 – Beloki 5 (1. mailako nag.)  
Lagunak 21 – Hernani 22 (1. mailako nag.)  
Lagunak 22 – Aretxabaleta 11 (3. mailako nag.)  
Lagunak 14 – Goierrri 22 (1. mailako jub.)  
Txapagain 22 – Lagunak 16 (2. mailako kad.)  
Lagunak 25 – Altzatarrak 22 (3. mailako nag.)  
Alde Zaharra 25 – Lagunak 19 (3. mailako nag.)

### ARETO FUTBOLA

Laskorain 2 – Concepto Createch 1 (1. maila)  
King-Kong 13 – Aldapeta 2 (Jub.)

### ESKUBALOIA

Iles Construcción 22 – Tecnifuelle Elg. 23 (Sen. nes.)  
Grupo Eibar Elg. 36 – Errotabarri 26 (Jub. nes.)  
Lauro Elg. 21 – Errotabarri 22 (Kad. nes.)  
Alkorta Elg. 33 – Ereintza 27 (Sen. mut.)  
Beristain Elg. 21 – Katilu 22 (Jub. mut.)  
Txariduna Elg. 26 – Pulpo 34 (Kad. mut.)  
IMH Elg. 22 – Egia 13 (Kad. nes.)  
Aloña Mendi 20 – Bankoa Elg. 40 (Kad. mut.)  
Pulpo 9 – Aterpe Elg. 32 (Inf. mut.)  
Astigarraga Elg. 27 – Aiala 32 (Inf. nes.)  
Pulpo 18 – Ikus Elg. 16 (Inf. nes.)

## AGENDA

### ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 4  
16:00 Concepto Createch – Soloarte (1. maila)

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 4  
10:30 Elgoibar – Eibartarrak (Kad. B)  
12:15 Elgoibar – Eibar (Kad. A)  
Domeka, 5  
12:00 Elgoibar – Ordizia (Ohorezko inf.)

# LOR EZAZU



# 8 KO

## DESKONTUA

CEPSAko zerbitzuguneetan gasolina hartzeko.

## BAITA

# 6 € KO



opari txartela ere CEPSAko zerbitzuguneetan gasolina hartzen duzun bakoitzean.

Eibarko El Corte Inglésen 25 €-tik gorako erosketak eginez gero,  
%8ko deskontua(\*) lor ezazu  
CEPSAko zerbitzuguneetan gasolina hartzeko.

CEPSAko zerbitzugune hauetan erabiltzeko:

- BERRIZ: Eitua Plaza (Berriz)
- COPELCELT: San Fausto auzoa, 2 (Elorrio)



(\*) Lehenengo 25 litroetan %8ko deskontua. 2011ko otsailaren 28ra arte aplikagarria, erregaletan bakarrik. Deskontu hau beste eskaintza batzuekin batera erabil daiteke, CEPSAren bertatik bertarako deskontu txartelekin izan ezik. Oinarriak CEPSAko zerbitzuguneetan emanda. 6€-ko opari txartela El Corte Inglésen (Moda, Oinetako, Osagarri, Lurrindegi eta Kiral sailetan) edo Hipercoren erabilgarria 30 €-tik gorako erosketetan. Eskaintza hau indarrean egongo da 2011ko otsailaren 19ra arte.

**LANA**

**ESKAERA**

- Gizona pintore edo elektrizista lanak egiteko prest. ☎ **606 612 834**
- Emakumea edozein lan egiteko prest. Nagusiak zaindu, garbiketa lanak... ☎ **667 709 438**
- Neska gaztea eskaintzen da nagusiak edo haurrak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko. Edozein ordutan. ☎ **678 972 690**
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko. Gauez ere bai. ☎ **630 365 137 / 660 651 569**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Arratsaldez edo orduka. ☎ **618 057 967**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo tabernan lan egiteko. Asteburuetan edo orduka. ☎ **696 246 962**
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. ☎ **699 619 447 / 943 743 730**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Asteburuetan ere bai. ☎ **618 163 061**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko. Arratsaldez eta asteburuetan. ☎ **646 821 678**

- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko. Orduka. ☎ **648 603 029**
- Neska eskaintzen da garbiketa lanak egiteko edo umeak edo nagusiak zaintzeko. ☎ **673 875 123**

**ETXEBIZITZAK**

**ALOKAIRUA ETA SALMENTA**

- Etxebizitza alokatzen da Mendaron, Azpilgoeta auzoan. ☎ **685 772 494**
- Elgoibarko erdigunean pisua salgai, hormigozkoa. Bi logela eta egongela. 19.000.000 pezeta. ☎ **679 843 332**
- Etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ **651 663 642**
- Etxea salgai. Hiru logela, sukaldea, komuna eta egongela. Berritua eta oso egoera onean. Prezio interesgarria. ☎ **688 658 183**

**AUTOAK ETA GARAJEAK**

- Garaje itxia alokatzen da San Roken, Telefonica parkean. ☎ **943 742 931 / 660 937 529**

- Autoa salgai. Opel Astra automatikoa. Bi urte eta erdi ditu. Merke, aukera bikaina. ☎ **619 127 474**

**LOKALAK**

- Kafetegia alokatzen da erdigunean. ☎ **943 740 037**

**BESTELAKOAK**

- Bibolina galdu dut musika eskola inguruan. Aurkitu duenak, mesedez, musika eskolara eraman dezala.
- Koltxoi berria salgai. Somma Galaxi 1,60x1,90 visco. Merke, aukera bikaina. ☎ **686 882 162**
- Bi hilabeteko boxer arrazako txakurrak salgai. ☎ **629 476 427**
- 90 zentimetroko bi oheko altzaria salgai. Oso merke. ☎ **943 743 975 (Arrate) / 645 599 810 (Mirela)**

**BARRENen aldeko BONOAK erosteko:**

- **BARREN** astekarian (Nafarroa plaza)
- **Elgoibarko Izarran** (Ubitarte 4)
- **Telefonoz:** 943 741 626
- **E-postaz:** [elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com)
- **Pitxintxun**
- **Mendaroko Morroskillo dendan**

**800 BONO FALTA ZAIKIGU SALTZEKO!**

**Bihar, Mendaroko Kontzezio Azokan izango gara. Zatoz, eta lagundu BARRENi!**



Bonoa erosten duten guztien artean, Belaustegi jatetxean bi lagunentzako dastatze-menua zozketatuko dugu

BARRENen aldeko bonoak saltzeko prest al zaude? Deitu edo idatzi Elgoibarko Izarrara eta benetan estimatuko dizugu. Eskerrik asko!



**Ni ere banaiz BARREN!**



• Zorionak, **Jakes**, abenduaren 9an 4 urtetxo egingo dituzulako. Patxo bat, bereziki, Joaneren partez.



• Zorionak, **Adrian**, gaur 9 urte egin dituzulako. Ondo pasa! Gurasoen partez.



• Zorionak, **Ibai**, gaur 3 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiakoen partez.



• Zorionak, **Iker!** Oso ondo pasa genuen zure laugarren urtebetetzeko ospakizunean. Etxekoan eta bereziki Markelen partez.



• Zorionak, **Gorka**, astelehenean 8 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiakoen partez.



• Zorionak! Marimar, Edu eta Juliaren partez. Ondo pasa eguna.



• Zorionak, Nahia! Beti txikia izango zinelakoan, baina, bai zera! Abenduaren 6an 10 urte! Ospatuko dugu! Aitxita, amama, Maite eta tio.



• Zorionak, aittitta! Familia osoaren partez, eta bereziki, Mariaren eta Eleneren partez.



• Zorionak, **Iñigo**, abenduaren 12an 5 urte beteko dituzulako. Etxeko guztien partez, ondo pasa eguna.



• Zorionak, **Iker**, gaur, abenduak 3, 2 urte bete dituzulako. Muxu handi bat familiakoen partez.



• A ze ezustekoa, eh? Zorionak, eta ondo pasa!



• San Andres egunean ezkondu zineten, orain dela 60 urte. Zorionak, **bikote**, familiako guztien partez.



• Zorionak, **Nagore!** Asteazkenean 5 urte egin dituzulako. Familiakoen eta bereziki Unairen eta Juneiren partez.

## OSPAKIZUNAK KINTOAK



Azaroaren 6an bazkaria egin genuen 85eko kintakoez Sigma jatetxean. Sorpresas beteriko egun ederra pasatu genuen guztiok. Antolatzaileen partez, eskerrik asko etorri zineten guztioi, eta ea hurrengoran gehiago elkartzen garen.

**Erretratu bakarreko agurra: 2 euro. Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukoitza: 5 euro. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 euro.**

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu. **BARRE**neko bulegora 12:00ak baino lehen, edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) e-postara bidali.

**OKINDEGIA**

5 domeka **FOTERO**  
 6 astelehena **IBARRENA**  
 8 eguaztena **EIZAGIRRE**  
 12 domeka **FOTERO**  
 19 domeka **IBARRENA**

**FARMAZIAK**

**24 ORDUZ**

- 3 Etxeberria (*Errosario*)
- 4 Ibañez  
Goizez: Garitaon.- Bidasolo
- 5 Ibañez
- 6 Etxeberria (*Errosario*)
- 7 Etxeberria (*Santa Ana*)
- 8 Etxeberria (*Santa Ana*)
- 9 Yudego
- 10 Zabaleta
- 11 Etxeberria (*Errosario*)
- 12 Etxeberria (*Errosario*)
- 13 Ibañez
- 14 Garitaonandia-Bidasolo
- 15 Etxeberria (*Santa Ana*)
- 16 Fernandez
- 17 Etxeberria (*Santa Ana*)
- 18 Zabaleta  
Goizez: Yudego
- 19 Zabaleta
- 20 Etxeberria (*Errosario*)

**Ibañez**  
 Rekalde, 1 (SORALUZE)  
 Tel: 943 751 638

**Fernandez**  
 Herriko enparantza 4,  
 Garagartza (MENDARO)  
 Tel: 943 756 142

**Zabaleta**  
 Kalebarren, 9 (SORALUZE)  
 Tel: 943 751 384

**INFORMAZIO  
 GEHIAGO:**

[www.elgoiBAREN.net](http://www.elgoiBAREN.net)



**4 zapatua**

**Feria**  
**9:00 Kontzezio Azoka**  
 Mendaron. Baserriko produktuak eta abereak jarriko dituzte ikusgai. Idi probak eta artisau postuak ere egongo dira. Herriko Enparantzan.

**5 domeka**

**Antzerkia**  
**16:30 'Pinotxo'**  
 Umeentzako antzerkia, Herriko Antzokian.

**10 barixakua**

**Erakusketa**  
**19:00 'Kantauri'**  
 Argazki erakusketa jarriko dute ikusgai abenduaren 23ra arte. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

**Antzerkia**  
**20:30 'Larru haizetara'**  
 Umorezko antzerkia taularatuko du Bikor teatroak Herriko Antzokian.

**12 domeka**

**Lehiaketa**  
**11:00 Jaiotzen lehiaketa**  
 14 urtetik beherakoentzako lehiaketa. Elizako arkupeetan jarriko dituzte ikusgai, eta meza ostean banatuko dituzte sariak.

**14 martitzena**

**Xakea**  
**13:00 Aurkezpena**  
 Nazioarteko Xake Txapelketa aurkeztuko dute udaletxeko pleno aretoan. Partidak hilaren 21era arte jokatuko dituzte, eta egun horretan banatuko dituzte sariak.

**16 eguena**

**Hitzaldia**  
**18:00 'Itxaropen telefonoa'**  
 Lorena Pidal izango da hizlaria. Gipuzkoako Itxaropen Telefonoari buruzko hitzaldia eskainiko du. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

**Jaialdia**  
**19:00 Ikastolakoen jaialdia**  
 Ikastolako DBHko ikasleek Gabonetako jaialdia egingo dute, Herriko Antzokian. Eguerdian beste saio bat egingo dute, 14:15ean hasita, ikastetxeko ikasle txikientzat.

**17 barixakua**

**Dantza**  
**20:30 'Urban show'**  
 Hip-hop erakustaldia, Herriko Antzokian.



**LUDOTEKAKO EKINTZAK**

Abenduaren 23an  
**GINKANA-MERIENDA  
 LUDOTEKAN!**

17:00etatik aurrera LH4-6 bitarteko haur guztientzat. Doan

Urtarrilaren 5ean **ZINEA** hitzaldi gelan: 'Numero 9'.  
 11:00etan LH4-6 bitarteko haur guztientzat. Doan.  
 Bete arte.



**GAZTELEKUKO EKINTZAK**

Badatoz Gabonak eta gaztelekuan programaketa berezia daukagu! Honen berri udaletxeko webgunean, gaztelekuan, *Tuentian* eta zure ikastetxeko informazio panelean izango duzu!

«Nagore Laffage»  
 3, barixakua: 22:15

«Wii Street: el dinero nunca duerme»  
 4, zapatua:  
 19:00/22:15  
 5, domeka: 19:00

«La red social»  
 6, astelehena: 19:00  
 7, martitzena: 22:15  
 8, eguaztena: 19:00

«El diario de Greg»  
 6, astelehena: 16:30  
 8, eguaztena: 16:30





## 19 domeka

### Xakea

**11:30** Eskolarteko xake txapelketa

Elgoibarko Xake Taldeak Juan Mugertza kalean daukan lokalean egingo dute.

### Musika

**12:30** Udal Musika Bandaren kontzertua

Musika Bandak kontzertua eskainiko du, Herriko Antzokian.

### Aisialdia

**12:30** Santo Tomas jaja

Zubibaik antolatuta, Altzolako frontoian.

## 20 astelehena

### Mendia

**19:00** Argazki erakusketa  
Morkaikoren argazki eta bideo erakusketa zabalduko dute, Kultur Etxeko sotoan.

### Tailerra

**17:00** Arte tailerra  
Egiptoko jainkoen mitologiari buruzko tailerra antolatu du Haizeak. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## 21 martitzena

### Jaiotza

**20:00** Jaiotzaren inaugurazioa  
Parrokiako jaiotza zabalduko dute, elizako lokalean.

## OHARRA

Konstituzio eguneko jai zubia dela-eta, datorren astean ez dugu **BARREN** kaleratuko. Hurrengo alea Gabonetako berezia izango da, eta abenduaren 21ean jasoko duzue, martitzenean.

**JOSTUNEN EGUNEKO MENU BEREZIA**  
**ABENDUAREN 11n**

Pedro Mugertza, 22  
Tel.: 943 742 500  
943 744 008  
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

- Musika dantzagarría
- Gabon Zahar eguneko bazkariak

**B**  
**BARREN**  
943 743 704

**Jarri ezazu zure publizitatea Gabonetako alean**



I. URTEURRENA

## VALENTIN ROMERA RAMOS

2009ko abenduaren 24an hil zen. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, abenduak 18, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari. Joango zaretenoi eskerrak alde zuretik.



«Gru, mi villano»  
12, domeka: 16:30

«La nana» (Ongarri)  
9, eguena: 21:30

«El verano de la boyita» (Ongarri)  
16, eguena: 21:30

«Izarren argia»  
11, zapatua:  
19:00/22:15  
12, domeka: 19:00  
13, astelehena: 21:30

«Stone»  
18, zapatua:  
19:00/22:15  
19, domeka: 19:00  
20, astelehena: 21:30

# MILAR

## BIRE

Ubitarte, 11  
Tel.: 943 741 487  
bire@milar.es

Sustapen honek izakinak ahitu arte balio du

52 €



### MOULINEX MIKROUHIN-LABEA

Elektronikoa  
18 litro  
1000 w grill  
1050 w mikro

579 €



### BOSCH HOZKAILU KONBINATUA

185 x 60 zm  
Inox - No Frost  
Bakterien kontrakoa

399 €



### PANASONIC TELEBISTA

32"  
HDMI 2 konexio  
IPS - ALPHA panela  
Bereizmen handiko TDTa  
SD txartelen irakurgailua

379 €



### SIEMENS GARBIGAILUA

A - %10 maila energetikoa  
1000 Rev.  
53 litroko danborra  
Varioperfect - speedperfect - echoperfect



**Ermuaranbide 1, - Elgoibar - Tel.: 943 740 490**



## **JOSTUNEN EGUNEKO MENU BEREZIA**

Gula-entsalada  
Perretxiko eta baratxuri fresko hostorea  
Kalabazin betea saltsa berdean  
Otarraixka bilkari frijitua barazkitxoekin

Zapoa edo  
Okela-masaila ardo beltzetan

Krema hostorea

Urteko ardo beltza  
Klareteak  
Ardo gorriak

**33 €**

**ASTELEHEN, ASTEARTE, ASTEAZKEN ETA  
OSTEGUNETAN, 16:30ETIK 20:00ETARA**

- Txokolatea txurroekin edo opilekin 2,80 €
- Taloa baconarekin edo txorizoarekin.  
Taloa txokolatearekin.  
Taloa esne katilu handiarekin.  
4 € (Enkarguz)

**OSTEGUN, OSTIRAL ETA LARUNBATETAN  
19:30etik 21:30era**

- Ardo ondua + pintxoak 2,25 €

**Asteburuetan**

- Txerri ukondoa hornigaiarekin  
+ Garagardoa 12,00 €
- Txahal-txuleta hornigaiarekin  
+ Garagardoa 14,00 €



Gosariak - Menu bereziak - Enpresa menuak - Bataioak eta jaunartzeak - Familia bazkariak

***Eska itzazu menuak***



# **PAULANER TXARRIDUNA**

# PINOTXO

TEATRO LIBERTABLAS

ABENDUAK 5, IGANDEA

**16:30**ean, Herriko Antzokian.



BIKOTEATROA

# LARRU HAIZETARA



ABENDUAK 10, OSTIRALA  
**20:30**ean, Herriko Antzokian.



IKUSKIZUN ESZENIKOAK

Sarrera Salmenta



kutxa

CAJEROS SERVIKUTXA

943 00 12 00

[www.kutxa.net](http://www.kutxa.net)